

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendariz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Edorta Barandiaran García  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Begoña Eraña Lazcano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maider Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán  
Leire Okaranza Ibabe

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veinticuatro de febrero de 2010, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2010/01/27an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **3.1.- ERABAKIAK**

Alkate jaunak 2010eko otsailaren 23ra arte hartutako erabakien berri eman du eta horien laburpenaren kopia banatu du.

Ondoren, erabaki hauen berri zehatzagoa eman da:

#### **ALKATE ERABAKIA**

**ZENBAKIA: 64**

**DATA: 2010.02.02**

**Espedientea: 20109KKRA0001**

**GAIA: kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 2 zenbakidun espedientea onartzea**

UDAL honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako expedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikulan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikulan eta 2009ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikulan jasotako eskumenak erabilita, Alkate naizen honek honako hau

#### **ERABAKI DUT**

**Lehena.-** UDAL honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

| Kapituluak                    | Izena                                     | Gehikuntzak    |
|-------------------------------|---|----------------|
| 2                             | Ondasun arrunten eta Zerbitzuen erosketa. | 50.050,00<br>€ |
| 6                             | Inbertsio Errealak                        | 61.950,00<br>€ |
| <b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA...</b> |   | 112.000,0<br>€ |

### **FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

| Kapituluak     | Izena             | Gehikuntzak    |
|----------------|-------------------|----------------|
| 8              | Finantza Aktiboak | 112.000,0<br>€ |
| <b>GUZTIRA</b> |                   |                |

**Bigarrena.-** Kreditu gehigarri honen aldaketa behi-behinekoia izango da eta 2009ko aurrekontua likidatu ondoren behin betiko onartuko da.

**Hirugarrena.-** Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 114

**DATA:** 2010-02-22

**GAIA:** ERREKURTSOAN AGERTZEA

**ESPEDIENTEA: ESPETXEETAN PRESO DAUDENEN SENIDEENTZAT GARRAIOKO DIRU LAGUNTZAK**

**INTERESDUNA:**

Estatuko administrazioak administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri du 2009ko abenduaren 4an Alkateak hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horretan "Especieetan preso daudenen senideentzat banakako garraioko diru laguntzak arautzen dituzten oinarri espezifikoak" onartzen ziren eta diru laguntza horietarako deialdia egiten zen.

AAJLko 48 eta 49 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

### **ERABAKI DUT**

1.- EAEko Auzitegi Nagusira –Administrazioarekiko Auzietako Salara- erabaki honen goiburuan aipatutako deialdiaren babesean emandako diru laguntzen espediente osoaren kopia eskuetsia bidaltzea.

2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekursoan agertzea PAULA BASTERRECHE ARCOCHA prokuradore andrearen bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

3.- AAJLko 49.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako erabaki hau expedienteean interesa duten guztiei jakinaraztea eta interesatu horiei epatzea EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan jarritako administrazioarekiko auzi-errekursoaren (procedura arrunta 98 legea 2043/07-1 IZO: 00.01.3-07/002778) expedienteean demandatu bezala agertu ahal izan daitezen.

Eskoriatzan, 2010eko otsailaren 22an. ALKATEA

## 2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Alkate jaunak esker oneko hitzak izan ditu udaleko arlo guztiak langileentzat Aranburuzabalako mendi-hegaleko lur-jausia dela-eta sortutako arazoei erantzuteko erakutsitako jarreragatik eta egindako lanarengatik.

### **3.- GAZTELEKU ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATUA ALDATZEA ETA HITZARMENA SINATZEA ESKORIATZAKO UDALAREN, TXATXILIPURDIREN ETA 12 ETA 16 URTE ARTEKO GAZTE TALDE BATEN ARTEAN.**

2006ko irailaren 22ko Alkate erabakiz TXATXILIPURDI HAUR ETA GAZTE EKINTZAK AEDri esleitu zitzaien Gazteleku zerbitzuaren kudeaketa. Zerbitzua 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzenduta dago.

Kultura batzorde informatzaileak kontratua aldatzea eta Gazteleku zerbitzua 16 eta 18 urte arteko Eskoriatzako gazteei zabaltzea proposatu du, eta baita gazte horiei zerbitzu horretarako erabiltzen den lokalaren erabilera baldintza batzuekin lagatzea ere.

Proposamen horiekin apustu bikoitza egin gura da: lehenik, gazteen parte hartzea sustatu nahi da herrian eta bide berri bat zabaldu gazteek euren aisialdi ekintzak antolatu ditzaten; eta bigarrenik, Gazteleku zerbitzua gazteek 18 urte bete arte luzatzea, 16-18 urteko adin tartekoei autonomia eta ardura gehiago emanez.

Txatxilipurdi elkartea 18 urtera arteko gazteekin lanean jarraitzeko borondatua agertu du.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- TXATXILIPURDI HAUR ETA GAZTE EKINTZAK-AEDri 2006ko irailaren 22an esleitutako Gazteleku zerbitzuaren kudeaketa kontratuaren aldaketa onartza 2010eko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin. Zerbitzua 18 urtera arteko Eskoriatzako gazteei zabaltzean datza aldaketa, eta ez du ekarriko prezio igoerarik indarrean dagoen kontratuaren.

Bigarrena.- Zerbitzuaren erabiltzaile izango diren 16 eta 18 urte arteko gazteei baimena ematea Gazteleku zerbitzuaren ordutegitik kanpo lokala eta bertako instalazioak erabiltzeko akta honi erantsitako hitzarmenean ezarritako baldintza eta arauak betez.

### **4.- KIROL ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ETEN EGITEA AIPATUTAKO ZERBITZUA ZUZENEAN ESLEITZEA IREKITAKO ESLEIPEN PROZEDURA ERABAKI ARTE.**

Udalbatzarrak 2008ko urtarrilaren 30ean hartutako erabakiz, GOIENA SPORTi esleitu zitzaien kirol jarduerak kudeatzeko kontratua ondoren adierazten diren prezioen eta honako hauen

arabera: zerbitzua arautzen duen erregelamendua, baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen pleguak eta esleipendunak eskaintzan egindako hobekuntzak.

SOROSPENA: 19,57 €/ordua

KONTSERJE LANA: 19,57 €/ordua

Gimnasia, 3. adinekoentzat 23,40 €/ordua

Gimnasia, ezinduak: 23,40 €/ordua

Kontratua BI URTErako zen 2008ko otsailaren 1etik aurrera kontatzen hasita, eta beste LAU URTEZ luzatu zitekeen, guztira 10 URTE egin arte. Luzapen horretarako, alde biek espresuki adostu behar zuten kontratuaren hasierako bi urteko epea bukatu aurretik.

2010eko otsailaren 1ean GOIENA SPORTek idazki bat aurkezu du aurreikusitako luzapenari uko egiteko, eta horretarako arrazoia justifikatu ditu.

Beharrezkotzat jotzen denez zerbitzuak etenik gabe ematen jarraitzea, GOIENA SPORTekin adostu da zerbitzuaren aldi baterako kudeaketa beraiei esleitzea kontratacio expediente berria izapidetu eta erabaki artean.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, eta Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2008ko urtarrilaren 30eko erabakiz kirol jarduerak kudeatzeko GOIENA SPORTi esleitutako kontratua amaitutzat jotzea 2010eko otsailaren 28tik aurrerako ondorioekin.

**Bigarrena.-** Zerbitzu horien kudeaketa prozedura ireki bidez esleitzeko kontratacio expedientea izapidetzen den artean eta prozedura erabaki arte, zerbitzuaren kudeaketa GOIENA SPORTi esleitzea etendako kontratuaren ezarritako baldintza beretan.

## **5.- “OSASUN PARKEA” KIROL AZPIEGITURA ONARTZEA.**

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatziaileak eta Kirola azpibatzordea horrela eskaturik, aho batez honako hau ONARTU DA:

Dorleta inguruan, bidegorriaren ondoan, egin gura den “Osasun Parkea” kirol azpiegitura egiteko proiektua ONARTZEA. Azpiegituraren aurrekontua 22.000,00 eurokoa da.

## **6.- “MARTXOAK 8: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA” DELA-ETA, EBK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Merino jaunak mozioa irakurri du. Hona hemen transkripzioa:

Martxoaren 8 honetan ekimen politikoak eta legegintzakoak diskriminazio eta indarkeriaren egiturazko alderdi bakotza eta guztiak konpontzera zuzendu behar direla defendatzen jarraitzen dugu, eta ekimen horiei heltzerakoan, nagusiki gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoerak oraindik ere ahalbidetzen eta indartzen dituzten gizarteko baloreak aldatzeko helburuan oinarritutako prebentzio eta zeharkako neurriekin ekin behar zaie.

Norberaren gorputzari buruz libre erabakitzeko eskubidea lortzea, eta horretarako, inolako tutoretza patriarkalik gabeko abortu librea eta doakoa eskatzen dugu. Abortuaren despenalizazioak oinarrizko aldarrikapena izaten jarraitzen du.

Era berean, lana eta familia bateragarri egitea momentuz ikustear dagoen gauza da. Oraindik gizonek ez dituzte berdintsu bere gain hartzen familiako ardurak eta etxeko lanak. Horiek bere gain har ditzaten, hori arautzeko legeak ez ezik, beharrezko da, eta are garrantzitsuagoa, oraindik ere bizirik dirauen kultura patriarkala eta sexista aldatuko duen berdintasun gizarte kontzentzia sortzea.

Krisiak lan merkatuan duen eragina larriagoa da egunetik egunera emakumeen kasuan. Emakumeei egiten zaizkien kontratu guztietan inoiz baino argiago ikusten dira orain enplegu-kolokatasun

amaigabea, soldata ezberdintasuna eta sexuagatik edo emakumearen egoera zibilagatik egindako diskriminazioaren eraginak lana eta lampostu finkoak lortzerakoan.

Gaur egungo krisiaren larritasunak sortutako moduko egoera batean emakumeentzako arriskurik handiena lan merkatura sartzeak eta baita bere jarduera-tasak (berez oso txikia) atzerakada izatea da, eta horrekin batera emakume asko etxeko lanetara eta senideak zaintzera itzultzea; eta horrek, aurre egiten ari garen rol patriarkal zaharretarako inoiz izan ez den bezalako inboluzioa ekar dezake.

Bestalde, txirotasun indize larriez oraindik ere beharrezkoagoa egiten dute Gizarte Estatua eta babes sistemak indartzea, txirotasunak eragin handiagoa duelako emakume etorkinengen (babes gutxiago dute), eta oinarrizko beharrak betetzera iristen ez diren gutxiengo pentsiodun edo kotizazio gabeko pentsiodun emakume zaharragoetan.

Oraindik ere milaka dira mobilizatzeko ditugun arrazoia: enplegu-kolokatasuna, txirotasuna, biolentzia, ikusezintasuna, diskriminazioak... Horregatik guztiagatik 2010ean urrats bat gehiago eman gura dugu, eta 2008ko urrian Vigon bildu ginene mundu guztiko emakumeek berriz ere elkarrekin martxan izango gara martxoaren 10ean Euskadin lau jarduera arloren inguruan: guzion ongia, emakumeen aurkako indarkeria, lana eta bakea eta desmilitarizazioa.

Berdintasunean, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako mundu bat gura dugu gizarte justua eta bakean biziko dena izateko. Ez dugulako bigarren mailako herritarra izan nahi eta bizitzako arlo guztietai gure parte hartzea kontuan har dadin gura dugulako, lan tresna bezala Emakumeen Eskubideen Gutuna sortu dugu.

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, egun aproposa da emakumeon berdintasuna helburu soila izan beharrean egiazkoa izatea lortu ahal izateko Udal honek benetako oinariak jartzeko borondatea duela erakusteko. Horretarako, hainbat neurri hartu beharko lituzke gure gizartea aldatu eta emakumeek eskubide osoko herritarra izan gaitezen.

Horregatik, Esker Batua-Berdeak udal taldeak Udalbatzari proposatzen dio horri buruz hartuko diren neurri guziak lotesleak izatea eta neurri horiek bete daitezten eta ebaluatu ahal izateko giza eta material baliabideak jarri eta arau osagarriak hartzea ondorengo erabakiaren arabera:

#### AKORDIOA:

1.- Dei egitea interesatuta egon daitezkeen emakume eta emakume elkartea guztiei 2010eko emakumeen martxari atxiki eta bertan parte hartu dezaten.

2.- Konpromiso politikoa hartztea eskubide eta betebehar berdinak dituzten pertsonaz osatutako udal/probintzia sortzeko, horretarako, dauden lege baliabideak erabiliz eta gizonek eta emakumeek garapen aukera berdinak izateko bideak posible eginaz:

- Sentsibilizazio sustatzen eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna gauzatu dadin ekintzak eta programak ezarriz eta garatuz.
- Emakumeen elkarteen mugimendua eta feminismoa espresio guztietai bultzatuz.
- Estatuan edo EAEn genero indarkeriaren ondorioz hilketaren bat dagoen bakoitzean, gizarte-narrio horren aurkako erakundearen konpromisoa eta salaketa agerian erakusteko puntu moreduen ezaugarria udaletxeko fatxadan jartzeari eskatzen dugu.

Irakurketa amaitu ondoren, alkate jaunak adierazi du berak, Agiriano jaunak eta Leceta andreak ekarpen bat egin gura dutela eta horretarako Agiriano jaunari eman dio hitza, eta honek honako testu hau irakurri du:

- Emakumeen aurkako indarkeria jendartean gertatzen den giza eskubideen urraketa larrienetako eta hedatuinetako da.
- Emakumeen eskubide sexual eta erreproduktiboak ez daude bermatuta. Emakumeon sexualitatea, genero aginduek arautzen jarraitzen dute.
- Prekarietateak oraindik ere emakume aurpegia du. Egun, sexuaren araberako lan banaketan oinarritzen den eredu ekonomiko kapitalista, liberalista eta patriarkala dugu.
- Elikadura burujabetza, herriek beren nekazaritza eta elikadura politiken gainean erabakitzeko eskubidea da.

Alkate jaunak argitu du Agiriano jaunak irakurritako testu hori egin gura duten ekarpen bat besterik ez dela, ez dela mozio alternatibo bat, eta zehaztu du EBk aurkeztutako mozioaren alde bozkatuko lukeela aldaketa bat sartuz gero: "Estatuan edo EAEn.." esaten duen leku "Estatuan edo Euskal Herrian..." esatea.

Merino jaunak proposamena onartu du, eta bozketa egin ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako mozioa onartzea ondorengo xedapenarekin:

1.- Dei bat egitea interesatuta egon daitezkeen emakumeei eta emakume elkarteko guztiei 2010eko emakumeen martxari atxiki eta bertan parte hartu dezaten.

2.- Eskubide eta betebehar berdinako pertsonaz osatutako udal/probintzia sortzeko Konpromiso politikoa hartzera, horretarako, dauden lege baliabideak erabiliz eta gizonek eta emakumeek garapen aukera berdinak izateko bideak posible eginez honako hauen bidez:

- Sentsibilizazio sustatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna gauzatu dadin ekintzak eta programak ezartzea eta garatzea.
- Emakumeen elkarteen mugimendua eta feminismoa espresio guztietaan bultzatzea.
- Estatuan edo Euskal Herrian genero indarkeriaren ondorioz hilketaren bat dagoen bakoitzean, gizarte-narrio horren aurkako erakundearen konpromisoa eta salaketa agerian erakusteko puntu moredu ezaugarria udaletxeko fatxadan jartzea eskatzen dugu.

## **7.- EBK AURKEZTUTAKO MOZIOA GOBERNUAK ERRETIRO ADINA 67 URTERA ARTE LUZATZEKO EGINDAKO PROPOSAMENARI BURUZ.**

Hitza eman ondoren, Merino jaunak mozioaren testua irakurri du. Hona hemen transkripzioa:

GOBERNUAK ERRETIRO ADINA 67 URTERA ARTE LUZATZEKO EGINDAKO PROPOSAMENAREN GAINeko MOZIOA.

Estatuko Gobernuak, berak bakarrik eta aurrez inolako negoziaziorik gabe, erretiro adina 67 urte artera arte derrigorrez luzatzearekin pentsio sistema aldatzeko proposamena egin du.

Azken batean, gizarte eragileekin inolako adostasunik gabe, inolako kontzertazio sozial prozesurik gabe, eta garrantzitsuena dena, krisia langileen eskubideak ez kaltetzeko konpromisoa gezurtatuz, beste sakrifizio bat inposatu gura da kontu publikoen jasangarritasunaren izenean.

Neurri hau, gobernu aplikatzen ari den beste batzuekin batera, langileen eskubideen aukako erasoa da, eskuin politiko eta ekonomikoari eta enpresariei amore ematea, eta bestalde, ez dio inolako ekarpen zehatz eta benetakorik egiten krisi ekonomikoak sortutako arazo nagusiari: langabe kopuru izugarriak.

Proposamena atzerakoia da, kaltetutako langile guztiei erretiro eskubideko bi urte galtzea dakarkielako, batez besteko pentsioak jaistea gain -batez bestekoa 741,6 €-koa izan zen 2009an, Europako batez bestekotik urrutি.

Gainera, proposamen okerra da, hogeita hamar urterako egindako gastu proiekzioetan oinarritzen baita, eta ez ditu kontuan hartzen produktibitatearen hazkundea bezalako beste faktore batzuk edo sistema finantzatzeko ekarpen publikoen hazkundea bezalako beste alternatiba batzuk.

Finantza erakundeek mundu mailan egindako espekulazio jarduerek sortutako krisiaren erdian, gobernuaren proposamena pentsio sistema publikoa ahultzea eta krisia sortu duten bankuek kudeatzen dituzten pentsio sistema pribatuei leku handiagoa egitea bilatzen du.

Krisitik irteteko politika aurrerakoi batek baliabide publikoak gehitzea eskatzen du, eta horretarako, eredu fiskala aldatzea aberastasun gehien dutenek benetan gehiago ordaintzeko, lan eta zerga-iruzurren aurkako borroka sendoa egitea eta eskubide sozialak ez murriztea.

Horregatik guztiagatik, udalbatzarrari ondorengo erabaki proposamenak egiten zaizkio:

ERABAKIAK

1.- Eskoriatzako Udalak gaitzetsi egiten du Espainiako Gobernuak erretiro adina 67 urterako proposamena.

2.- Eskoriatzako Udalak Legebiltzarreko taldeei, gizarte eragileei eta Gobernuari jakinaraziko die erretiro adina luzatzeko proposamena gaitzesten duela.

3.- Era berean, Eskoriatzako Udalak bere babes ematen die erretiro adina luzatzeko proposamenaren aurka deitu daitezkeen mobilizazioei.

Alkate jaunak adierazi du beraiek abstenu egingo direla arrazoi batengatik, eta orokorrean mozioaren helburuarekin ados baldin badaude ere, ikusten dutela paperak dena aguantatzen duela, eraginkortasun oso txikia edo bat ere ez duela izango gai horri buruz hemen onartutakoak, eta beraiek gai horri buruzko eskumena Euskal Herriak izatea aldarrikatzen dutela eta ez Espainiako Estatuak jarraitza eskumen horrekin.

Pierrugues jaunak ondoren transkribatzen den mozio alternatiboa aurkeztu du:

#### PENTSIOAK ALDATZEARI BURUZKO MOZIO ALTERNATIBOA

Diputatueng kongresuak, nazioaren egoerari buruzko azken eztabaidan (09ko maiatza), Gobernuari pentsio sistemaren diagnostikoa bizkortu eta akordio bat sustatzea eskatzeko erabakia onartu zuen. Senatuak ere iazko martxoan eta apirilean hainbat erabaki onartu zituen zentzu berean.

Parlamentu-agindu horiek betez, Espainiako Gobernuak orain proposamena aurkeztu du, lan dokumentu bezala, etorkizuneko pentsioak gaurkoak bezain bermatuak egon daitezen, pare bat hamarkada barru demografia krisiareng ondorioz pentsio sisteman sortuko diren arazoei aurrea hartzeko asmoarekin.

Dudarik gabe, proposamena baliagarria izango da gizarte babes edo pentsio sistema indartsuari, sendoari, buruzko eztabaidea bideratzeko, ez bakarrik datorren hamarkadarako, -hori badaukagu-, baizik eta 20 edo 30 urterako ere bai. Eta hori guztieng artean eta ados jarrita egin dezakegu, hartu beharreko neurriak ahalik eta kontsentsu handienarekin hartu daitezen.

Eztabaida martxan jartzeko ardura berea dela uste du Gobernuak. Ez da txaloak bilatzeko eztabaida. Herria egiteko eztabaida da eta Gizarte Segurantzaren etorkizunari konfiantza emateko. Guztiok elkarrekin lan egiteko eztabaida da. Epe luzerako denez, eztabaida patxadaz egin daiteke. Ez du zerikusirik egungo egoerarekin, ez krisiarekin, ez ekonomia egoerarekin. Ez. Herri bezala ere, beste herri batzuk egiten duten moduan, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko lan egiten hasi behar gara.

“Pensionazoaz” hitz egiten dutenei gogorarazi behar zaie demokrazia daukagun denboran hau dela gutxiengoko pentsioak gehien igo dituen Gobernu. Sentsibilitate gehien izan duena. Eta Gobernu hau zorroztasunez aritu da Gizarte Segurantzaren kudeaketan, eta horri esker, gaur egun 62.000 milioi euroko erreserba fonda dugu pentsioen etorkizunari segurtasuna emateko.

Beraz, aurka daudenei esan Gobernu hau entzuten duen gobernu dela. Ez da, ez da izan eta ez da izango dekretazo bidezko Gobernu. Eta gutxiago lan harremenan arloan. Eta ezta gizarte-babesekoan ere. Ez. Gizarte akordioaren Gobernu da, elkarrizketarena, beraz, akordio batera iritsiko garela uste duena.

Gaur egun, pensionista bakoitzeko -zortzi milioi pensionista baino gehiago- Gizarte Segurantzari kotizatzen duten 2,59 langile daude. Europako Batzordeak Espainiarentzat egin dituen aurreikuspenetan jasotzen denez, 2050. urtean pensionista bakoitzeko 1,33 kotizatzaile izango dira, hau da, ia erdia. Demografia proiekzioak eztabaidea zinak dira gure herriarentzako. 2049an 64 urtetik gorako biztanleria gaur egungoaren bikoitza izango da, biztanleria osoaren %32a, 16 milioi inguru, eta igoera handieneko adin tartea izango da.

Hori horrela izatearen arrazoia jaiotza gutxi izatea da, eta batez ere, bizi esperantza gero eta handiagoa delako. Japonen atzetik Espainia da jendeak urte gehien hartzen duen munduko herrialdea. 2049. urtera arteko denbora horretan, 16 eta 64 urte arteko biztanleria ia 6 milioi pertsonetan gutxituko da. Eta bizi esperantza 95 urte inguruan egongo da.

Horregatik, eztabaida heldutasunez, arduraz eta seriotasunez egin dezakegu. Oso espainiar gutxi daude, -batere ez dagoela ez esatearren-, ez dutenik nahi gizarte babes sistemarik, pentsio sistema

publiko indartsu bat eta ahalik eta pentsio onenak. Eta hori ahalegin guztiak eginda lortu dezakegu, erantzukizunez jokatuz eta ideiak mahai gainean jarritz.

Arduraz jokatu eta une honetatik lanean hasi beharra dago. Horregatik guztiagatik, PSE-EE udal taldeak honako mozio alternatiboa aurkezten du:

"Eskoriatzako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Toledoko hitzarmaren barruan, alderdi politiko eta ekonomia eta gizarte eragileen artean adostuta, pentsio sistema publikoan egin beharreko aldaketa susta ditzala etorkizunean Gizarte Segurantzako sistemaren jasangarritasuna bermatzeko helburuarekin eta kontuan izanik espainiar gizartearen bilakaera demografikoak sistema horretan izango duen eragina.

Eskoriatzan, 2010eko otsailaren 24an

### **Urrutia jauna: (berak esandakoa transkribatzen da)**

Kritikagarri zaigu egina den proposamena erretiro adina urte biz luzatzearen gainean; kritikagarri, gabetasun aldia hazteko egina den proposamena eta pentsioaren zenbaketa aldia bizitza-lanaldi osora luzatzekoarena. Toledoko hitzarmenak berak ere ezbairik sortzen ez duen eskaera du berean oinarri, esaten baitu pentsio sistemaren erreforma eginen dela egituraren beraren osotasunean. Hortaz, babestu beharreko kuotetakoren baten aldaketa proposamenak, eta bereziki erretiro adinari dagokion aldaketa saiakerak, bete betean desegituratzen ditu gainontzekoenak, estaldurarak gabe utzita langabeziari dagozkionak, ezintasunagatik -bere maila desberdin eta jasotakoak, ezintasun iraunkorrekoak, alargun eta umezurtz egoerei dagozkienak...

Erretiro adina eta gabetasun aldia -horiek biak soilik- aldarazteko zehaztasunez ezagutu behar da langabezi tasa. Egun ez dago prospektiba metodorik aipatuen neurutzerako; esan, 2010 urtearen amaierako langabeziaren egoera dela soilik ezagutzen duguna (4.316.700 langabtu, biztanleria aktiboaren %20a); jakin ere badakigu, enplegu berria sortzeko, urtearen barne produktu gordinak hasia behar duen ibilbidea %2ko hazkundearen araberakoa izanen dela.EUROSTATen iragarpenek diotenez menpekotasun tasa (65urtetik gorako biztanleria eta lanerako gai denaren arteko erlazioa) bikoitzuko zaigu %24tik %49ra, 2008 eta 2050 urteen artean; horiek horrela, bat etor gaitezke esaterakoan, 2025 urtetik aurrera -kasurik onenean- izango dela pentsio sistema diru huste iturri.

Sistemak bere berrikuntza egiterakoan diru sarrerak hartu beharko lituzke ikuspegi -diru sarrerak, gastuak bainohau da, lanerako gai den biztanleriaren hazkundea eragingo duten neurriak beharko lirateke hartu. Kezkagarria da oso, azken hiruhilekoan 1.700.000 bazkide galdua duena Gizarte Segurtasun sistemak. Kezkagarria baita ere oso, Egonkortasun eta Hazkunderako hitzarmena bete ez izana, testuak berak eskatzen baitu defizitak %3tik gora egiten duenean, beraren zuzenketarako neurriak beharko direla indarrean jarri, egun gaurdaino egin ez dena.

Madrilekoen proposamenaz esan, erretiro adina atzeratuta eta kotizazio aldiak -haien zenbaketarako - hamar urtez luzatuta -eta hortaz, egungo 15 urteko gabetasun alditik 25 urtekora salto eginda, eta zenbaketari erantsita antzinagoko kotizazio oinarriak- eragingo diola automatikoki %10eko jaitsera norbanakoon pentsioari. Huts egiten zaio esandakoarekin Gizarte Segurtasunaren edukieie zor zaien "atzeraezintasun printzipioari"; printzipioak esaten baitu, Gizarte Segurtasunaren gaine gainekeoz beharko dela arautu eskaintzen diren prestazioak are sendotu eta hobetzeko, eta saihestuta eskubide sozialen muinari murrizketarik ekar liezaiokoenean edozein arauketa berri.

Eta gehiago esanda, lan aldiaren urte biko luzapen neurriekin, oztopatzen da baita ere, urte biz, lehen enpleguaren bila ari den gaztearen lanerako aukera -langabeziak estuki jipoitzen duen besteetariko multzoa, gazteena-.

Europar Batasunean erretiro adina 67 urtera luzatu duen bakarra dugu Alemania. Eta bertan, Espainiar Estatuan ez bezala, alemaniar arautegiaren aldaketa egina da sindikatu nagusien eta patronalaren arteko akordioa oinarri hartuta; eta esan aldaketa neurriek jasoak dituztela osagarri, lan merkatu baldintzetan hobekuntzak -dela, etxetik kanpoko lana eta etxekoa uztartzeko baldintzetan, dela zerga politikazkoak, hitzarmen kolektiboan jasoak direnak, dela diruz ordaindutako lan uzte egoerenak....

Gobernuak onartu berri duen dokumentuak ez dakar inolako neurririk, jasoko den pentsioaren gaineko iruzurrari aurre egitekoak; ez dira halaber aipatzen ekonomia irregular egoerak gainditzeoak, bertan gordintzen baitira gehien lan baldintzak, eta ordaindu ez, Gizarte Segurtasunari eta administrazio zerga biltzaileari, dagokiona. Gogora ekarri, Zerga Biltzaile Inspektore elkartea dioenez –eta baita 2002ko Lan Inspekcio txostenak- ekonomia irregularraren bolumenaren gainean, Estatu espainiarren ekimen ekonomikoaren % 20 -30a dela irregular ekonomiazkoa.

Biziraupeneko pentsio eta diru laguntzeten estutzea ez dator bat guzti ongizatea bilatzen duen gizarte ereduarekin. Izan ere besteak beste, eta zaila dirudien arren, are kaltezen baita alargunen egoera, jasotzen duen pentsioa bizitza-lanaldi osoarekin bat ez datorrela nahasmenetan sartuta, eta laguntza honen aitorpen izaerari – zerga kontuetan- itxura aldazarita (errentaren, diru sarreren edo hildako bikotearen heriotzagatik jasotakoaren baitakoak % 52an mantentzen baitira).

Amaitzeko, adierazten du bere taldeak EBren mozioaren alde bozkatuko duela eta ez duela eragozpenik ikusten ere Pierregues jaunak aurkeztutakoaren alde bozkatzeko, dioenez, hain orokorra denez, inor ezin baita aurka egon.

Otamendi andreak adierazi du 27 minuto daramatzatela bertaratutakoekin zerikusirik ez duen gai bat buruz hitz egiten eta larregikoa iruditzen zaiola.

Eztabaida amaituta, mozio biak bototara jartzea erabaki da.

EBk aurkeztutako mozioa onartu da aldeko 4 botorekin (Merino jauna, Urrutia jauna, Eraña andrea eta Leceta jauna) eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen abstentzioarekin.

Pierrugues jaunak aurkeztutako mozio alternatiboari dagokionez, bozketa emaitza hauek izan dira: 3 boto alde (Pierrugues jauna, Urrutia jauna eta Eraña andrea), 3 boto aurka (Agiriano jauna, Leceta andrea eta Merino jauna) eta 4 abstentzio (Otamendi andrea, Leceta jauna, Lasagabaster jauna eta Okaranza andrea). Emaitza berdinketa izan bada ere, ez da bigarren bozketarik egin, eta beraz, izandako berdinketa erabakitzeko zain, mozioa mahai gainean gelditzen da datorren bilkurara arte.

**“Galde-eskeak”puntuarekin hasi aurretik eta AJAren 91. artikuluak ematen dituen eskumenak erabiliz, Alkate jaunak Udalbatzarrari galduetu dio Aranburuzabala kaleko mendi-hegala eusteko eta sendotzeko obrak esleitzeko beharrezko aurrekontu izendapena gaitza ahalbideratuko duen kreditu aldaketa expedientea hastearen premiaz.**

**Lur-jausi gehiago izateko arriskuak aipatutako obrak ahalik eta azkarren egitea eskatzen duenez, Udalbatzarrak aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quorumarekin, gaia aztertzea ERABAKI DU.**

## **8.- KREDITU ALDAKETA 3 ZENBAKIDUN KREDITU TRANSFERENTZIA.**

UDAL honen aurrekontuari dagokion kredituak aldatzeko 3 zenbakidun expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa kreditu gehigarri bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenak irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, aipatutako expedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzikerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen

erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondoren, HAZIENDA ETA ONDAREKO BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU

Lehenengo.- Udal honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehikuntza bidez kredituak aldatzeko 3 zenbakidun espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

| Kapituluak             | IZENA               | GEHIKUNTZAK |
|------------------------|---------------------|-------------|
| 6                      | Inbertsio errealak. | 227.000,00  |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA... |                     | 227.000,00  |

#### **FINANTZATZEN DITUZTEN ERREKURTSOAK**

| Kapituluak | IZENA                | GEHIKUNTZAK |
|------------|----------------------|-------------|
| 8          | Aktibo finantzarioak | 227.000,00  |
| GUZTIRA    |                      | 227.000,00  |

Bigarrena.- Jendaurrean erakustea hamabost eguneko epean, nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorrak onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.  
Hirugarrena.- Kreditu aldaketa espediente honen onarpena behin-behinekoia izango da, eta behin betiko bihurtuko da 2009ko aurrekontuen likidazioa onartutakoan.

#### **9.- GALDE-ESKEAK.**

##### 9.1.- HERRITARREN SEGURTASUNA

Azken egunotan Eskoriatzako etxebizitzetan eta dendetan egin diren lapurketen berri bertaratuiei eman ondoren, Merino jaunak herritarren segurtasuna nola hobetu daitekeen aztertu beharra azaldu du. Mahai gainean utzi du Ertzantzari laguntza eskatzeko aukera.

Gai hori Bergarako Ertzain-etxeeko buruarekin aztertu duela esan ondoren, Alkate jaunak proposamen horrek izan dezakeen eraginkortasunaz zalantzak dituela esan du, batez ere,

Ertzantzak ezin dituelako bere ahalegin guztiak Eskoriatzan jarri. Gehitu du Ertzantzak oso ondo erantzun duela Aranburuzabalako gertaeragatik beraingana jo denean.

Eraña andrea horrelakoetan zer egin daitekeen jakiteko Ertzantzari aholku batzuk eskatu eta horiek herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzearen alde agertu da.

Eztabaida amaituta, ez da gaiari buruz ezer zehaztu.

*20:30etan Karmelo Leceta jauna eta Maider Otamendi andrea alde egin dute.*

## 9.2.- SANTA ANA KOMENTUKO OBRAK.

Merino jaunak komentu inguruko bizilagunekin oraindik Udala ez dela egon adierazi ondoren, ondorengo jarduerak egitearen alde agertu da: eraikineko bizilagunei egin beharreko obren berri eman, etxebizitzen egungo egoeraren notario-aktak jaso eta jasan beharko dituzten zarata, dardara eta abarrei buruz ohartarazi.

Alkate jaunak erantzun dio oraindik bizilagunekin ez dela egon, bizilagunek inolako zarata edo dardararik ez jasatea lortu gura dutelako obrekin, eta gainera, proiektaua orain dela gutxi iritsi dela eta asmoa berorri ahalik eta zabalkunde handiena ematea dela, hau da, bizilagunei ez ezik gainontzeko herritarrei ere proiektuaren berri ematea.

Ondoren, Merino jaunak galdu du Aldundiaren aldetik konpromisorik lortu den bigarren faserako.

Alkate jaunak erantzun dio bilera izan duela gaur bertan Aldundiko Kultura Zuzendaritzarekin eta erabaki dutela aurten erabakiren bat hartzea, izan ere, hemen eta orain oraindik ezin dugu hitz egin kopuru zehatzei buruz, bigarren faseko aurrekontua ez baitugu ezagutzen eta ezta obra horiek finantzatzeko Aldundiak zenbat diru izango duen ere.

## 9.3.- ARANBURUZABALAKO MENDI-HEGALA EUSTEKO OBREN FINANTZIAZIOA.

Eraña andreak galdu du zer konpromiso hartu duen Aldundiak Aranburuzabalako mendi-hegalean egin behar diren obren gainean.

Alkate jaunak erantzun dio ez dakitelako, orain arte duten bakarra beraiek inplikatuko zirela esanez Diputatu Nagusiak emandako hitza dela, eta honakoa gaineratu du: uste dut beraiek nahikoa inplikatu beharko direla proiektu honetan, bere garaian, orain dela 20 bat urte, inplikatu ziren eta ia % 90a ordaindu, nahiz eta diru kopurua handia ez izan, egindako obrekin adabakiak jartzera mugatu baitziren.

Begoña andrea: gainontzeko mendi-hegala begiratu behar da?

Alkate jauna: bai, mendi-hegal osoaren azterketa egitea esleitu da eta datorren astelehenean emango dut horren berri hirigintza batzordean.

## 9.4.- LANGABETUEN ELKARTEA.

Merino jaunak adierazi du langabetuen elkarteararen gaia ez dela aztertu batzorde baten ere, eta gaia aztertzea eskatzen du.

Lezeta andreak jakinarazten dio Gizarte Zerbitzuetako batzorde bateko gai zerrendan sartu zela, baina, batzorde horretara Merino joan ez zenez, gaia mahai gainean gelditu zela, bertaratutako inork ez zekielako zer egin gura zen gai horrekin.

Erabaki da gaia berriz ere Gizarte Zerbitzuetako batzorde batera eramatea.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura zortziak eta berrogeita hamar minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 27/01/2010.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES**

### **3.1.- RESOLUCIONES**

El Sr. Alcalde da cuenta de los acuerdos adoptados hasta el 23 de febrero de 2010 haciendo entrega de una copia del extracto de los mismos.

A continuación da cuenta de forma más detallada de las siguientes resoluciones:

#### **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA:**

**Nº: 64**

**FECHA: 02.02. 2010**

**Expediente: 20109KKRA0001**

**ASUNTO: Aprobación del expediente nº 2 de modificación de créditos mediante créditos adicionales.**

Examinado el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento.

Según el informe emitido por la Secretaría-Interventora, dicho expediente se ajusta a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Teniendo en cuenta lo anteriormente mencionado y en uso de las competencias otorgadas por el artículo 34.3 de la Norma Foral y el artículo 6.1 de la Norma de Ejecución Presupuestaria aprobada para el ejercicio del 2009,

#### **RESUELVO**

**Primero.-** Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afectan al presupuesto del ejercicio actual de este Ayuntamiento según la propuesta y el resumen de capítulos siguiente:

#### **CRÉDITOS ADICIONALES**

| Capítulos                | Denominación                            | Aumentos  |
|--------------------------|---|-----------|
| 2                        | Compra de bienes corrientes y servicios | 50.050,00 |
| 6                        | Inversiones Reales.                     | €.        |
| <b>TOTAL AUMENTOS...</b> |   | 61.950,00 |
|                          |   | €.        |
|                          |   | 112.000,0 |
|                          |   | €.        |

**RECURSOS QUE FINANCIAN**

| Capítulos    | Denominación        | AUMENTO       |
|--------------|---------------------|---------------|
| 8            | Activos financieros | 112.000,00 €. |
| <b>TOTAL</b> |                     |               |

**Segundo.-** La modificación de este crédito adicional será provisional, y se aprobará definitivamente una vez liquidado el presupuesto de 2009.

**Tercero.-** Dar cuenta de esta resolución al pleno en la siguiente sesión.

